

KRITIKA ANTZERKIA

Joxemari Carrere

Bikoteen kezketan, koxka



EGUNKARIA
Ramon Agirre eta Jose Ramon Soroiz, *Hor dago koxka* antzezlanaren protagonistetako bi.

'Hor dago koxka'

Taldea : Tanttaka Teatro. **Zuzendaria :** Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo. **Aktoreak :** Elena Irureta, Ane Gabarain, Jose Ramon Soroiz eta Ramon Agirre. **Musikaria :** Anjel Unzu.

Testuaren egilea : Quim Monzo. **Itzultzailea :** Ramon Agirre. **Abestien itzultzailea :** Joxerra Gartzia. **Lekua :** Donostiako Antzoki Zaharra.

Data : Otsailaren 15a.

Indartsu dabilta Tanttaka taldekoak. Joan den astean arrakastatsu estreinatu zuten *Errudun jaioak* eta aste honetan, berriz, *Hor dago koxka* antzezlan-a aurkeztu dute. Aurrekoan ezinegon islatzen zuen ekoizpena eskaini zuten, eta oraingo honetan komedia kutsua duen antzerki lana ekarri digute. Lana Quim Monzo idazle katalanaren *El perque del tot plegat* (*Gauzen zergatia*) ipuin bilduma ezagunean oinarritzen da ikusleari une goxoa igaroarazteko.

Ekintzan lagungarri diren osagaiak baino agertzen ez dituen agertoki hutsean; aktoreek beren baliabideen soiltasunarekin Monzok asmatutako hainbat istorio maisuki kontatuko dizkigute. Bi bikoteen

harremanak nola garatzen diren ikusiko dugu, betiere idazlearen kutsu surrealista eta ironikoaren estiloa azalaraziz.

Kantua oinarritzkoa

Liburua ezagututa zaila egiten da dramaturgia bat irudikatzea, baina zuzendarien aukerak, bi bikoteen gora-beherak ildo nagusitzat hartuta, horretan laguntzen du. Hala ere, istorioak lotzeko tarteak diren kantuek garrantzi handia dute. Alde batetik, trantsizioak errazten dituzte, eta, bestetik, antzezlanari erritmoa ematen diote. Kantuak zuzenean abesten dituzte aktoreek, Angel Unzu gitarra jolea ere bertan agertzen delarik. Istorio freskoak, irrigarriak, baina era berean, egungo bikoteen harremanen gainean gogoetarako parada ematen dutenak.

Dena dela, jatorrizko ipuinen surrealismoa faltan bota nuen

ni. Beharbada, beti gertatzen den moduan, liburua irakurrita edukitzeagatik gertatuko da hau, baina neronek Quim Monzok hain ederki islatzen duen hiri surrealismo hori gehiago espero nuen. Baina tira, gustuak gustu, komedia musikala

itxura duen antzezlan hau antzerkiarekin une goxo bat igarotzeko aukera emango digu, ikusleen barre algarek ez zuten besterik adierazten. Eta ikusleak aipatu ditudanez esan dezadan harrituta

gelditu nintzela antzokia beteta ikusitakoan. Osteguna zen. Antzerki lan bat euskaraz. Eta beteta. Eta gazteak batez ere. Orain dela urte gutxi fantasia hutsa zen hori. Horrek adierazten du euskararen egoera nahi genukeena ez bada ere, baikorak izateko arrazoiak baditugula. Eta euskal antzerkiak ikusle zaletu eta zaletzen ari den horri erantzuteko adina argumetuak badituela. Ea horri eusten diogun.

ANTZEZPENAK

Aktoreek Monzok asmatutako hainbat istorio bikain kontatzen dituzte

LITERATURA

Jose Saramago idazle portugaldarrak Amerikan aurkeztuko du 'A Caverna' liburua



EGUNKARIA
Jose Saramago

Jose Saramago idazle portugaldarrak Amerikako hainbat herrialdetan aurkeztuko du martxoan *A Caverna* bere azken liburua. Liburua aurkezteko bira Guatemalan hasiko du Saramagok martxoaren 2an. Hain zuzen ere, Antigua Guatemala hirian. *A Caverna* aurkezteko lehen zita horrek hainbat berezitasun izango ditu; besteak beste, Guatemalako literaturaren sona handiko bi pertsonaiak Saramago

elkarriketatuko dutela: Jose Luis Perdomok eta Maurice Echeverriak. Bere azken liburua aurkezteko bira hori martxoaren 2an hasi eta martxoaren 5ean amaituko da.

ZINEMA

'Italiensk for begyndere' filmak kritikaren saria jaso du Berlinalen

Lone Shepgifue zuzendari daniarraren *Italiensk for begyndere* filmak Berlinalen bildutako zinema kritikoen saria eskuratu zuen atzo. Sari ematea Berlinalako Urrezko Hartza baino egun bat lehenago eman dute aditzera. Shepgifue zuzendariaren filmak Berlinalako ikusleen txalo zaparrada handia jaso zuen. Kritikoen arabera, Eric Rohmerek idatzitako ipuinen kolorea eta sinpletasuna duen filma da.

ARTEA

Guatemalako 'Cultura Paiz' jaialdiak mundu osoko artistak bilduko ditu egunotan

Guatemalako VI. *Cultura Paiz* nazioarteko jaialdian Argentina, Brasil, Cuba, Estatu Batuak eta Italiako hainbat artista bilduko dira egunotan. Eskultura, pintura, musika, dantza eta literatura munduko artistak biltzen dituen jaialdi hori Antigua Guatemala herrian egiten da bi urtean behin. Erakusketak, kontzertuak, hitzaldiak eta bestelako ikuskizunak eskainiko dituzte gaurtik aurrera hurrengo hamar egunetan.

ZINEMA

'The quiet american' Vietnam filmatzen den lehen pelikula atzerriarra izango da

The quiet american pelikula egunotan hasi da filmatzen Vietnam. Phillip Noycek zuzendutako filma herrialde horretan grabatzen den atzerriko lehen pelikula da. Istorioa Frantziaren aurkako independentzia gerrari buruz dihardu. Protagonista nagusia Michael Caine aktore ezaguna izango da. Caine kazetari atzerriarraren rola egingo du. Do Hai Yen Vietnameko aktoreak Cainen neska lagunaren rola egingo du.

ARTEA

Alberto Peral artista euskaldunaren obra bat erosi du Madrilgo Reina Sofia museoak

Alberto Peral artista euskaldunaren obra bat erosi du Madrilgo Reina Sofia Museoak. Peralek Madrilgo Arte Garaikidearen jaialdian (ARCO) hartu du parte, eta jaialdi horretan ikusgai zegoen bere lan bat erosi dute. Museoak ARCO ikusgai izan diren 22 arte-lan erosi ditu. Besteak beste, Antonio Sauraren margolan bat eta Man Rayren argazki bat. Guztira, 120 milioi gastatu dituzte erosketak horietan.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: **2.200**
Astea (6 egun): **1.900**
2 aste (12 egun): **1.600**
Hilabetea: (24 egun): **1.200**

IRAGARKI
MERKEAK



ZORNOTZAN
PISUA SALGAI

[1993ko eraikina]
Ezkaratz ekipatua,
3 gela (guztiak kanpora)
ganbara, garajea.
24 milioi

656 734 199

Lete

Itzulpenak
egokitzapenak

administrazioa • publizitatea
enpresak • filmak • liburuak
zuzenketak

Tel.: 943 515 346
Faxa: 943 521 380